

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

4877

28/2019 DEKRETUA, urriaren 14koa, lehendakariarena, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluko kide batzuk berriro izendatzeko dena.

Garapenerako Lankidetzari buruzko otsailaren 22ko 1/2007 Legean ezarritakoaren arabera, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua arautu zuen irailaren 16ko 158/2008 Dekretuak, eta urriaren 21eko 197/2014 Dekretuak aldatu egin zuen azken dekretu hori.

Lehendakariaren uztailaren 27ko 22/2017 Dekretuaren bitartez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluko kideak izendatu ziren. Beren kardua dela-eta kide direnen kasuan izan ezik, izendapenek hiru urteko indarraldia izango dute, irailaren 16ko 158/2008 Dekretuaren 4.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Geroago, eta 158/2008 Dekretuaren babesean, kontseilu horretako kide bat aldatu da lehendakariaren martxoaren 13ko 8/2018 Dekretuaren bitartez.

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegitura Sailak, Enplegua eta Gizarte Politika Sailak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru-aldundiak, Euskadiko GGKen Koordinakundeak eta Unicef-Euskal Herriko Batzordeak izendapen berriak egin dituzte, beraz, kide horien izendapenak egin behar dira.

Ondorioz, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren burua naizenez, eta lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuan ezarritakoa betetzeko –dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sailak sortu, ezabatu eta aldatu zituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak ezarri zituen–, hauxe,

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Honako hauek Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluko kide izendatzea.

1.– Eusko Jaurlaritzan gai hauetan eskumena duten sailak ordezkatzeko:

a) Nekazaritza (Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila):

– Titularra: Jone Miren Fernández Landa andrea, Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako zuzendaria, Irma Basterra Ugarrizar andrearen ordezkaria.

– Ordezkoa: Azucena Salazar Bayona.

b) Gizarte-ongizatea eta gizarte-zerbitzuak (Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila):

– Ordezkoa: Agurtzane Llano Cuadrado andrea, Gazteriako zuzendaria, Ander Añibarro Maestre jaunaren ordezkaria.

2.– Foru-aldundiak ordezkatzeko:

a) Arabako Foru Aldundia:

– Titularra: Nerea Melgosa Vega andrea, Berdintasunerako, eta Giza Eskubideen zuzendaria. Nekane Zeberio Ganzarain andrearen ordezkaria.

2019ko urriaren 22a, asteartea

– Ordezkoa: Emilio Sola Ballojera jauna, Gizarteko Politiketako foru-diputatua, Arantza Cañameres Aguilar andrearen ordezkaria.

b) Bizkaiko Foru Aldundia:

– Titularra: Ignacio Rodríguez Puertas jauna, Lankidetzarako eta Dibertsitateko zuzendari nagusia, María Guijarro Ceballos andrearen ordezkaria.

c) Gipuzkoako Foru Aldundia:

– Titularra: Mikel Diez Sarasola jauna, Nazioarteko Lankidetzarako zuzendari nagusia, Fernando San Martín Gubia jaunaren ordezkaria.

3.– Euskadiko GGKEen Koordinakundea ordezkatzeko:

– Titularra: Olga García Martínez andrea, InteRed erakundekoa, Eva Silván Miracle andrearen ordezkaria.

4.– Euskadiko GGKEen Koordinakundearen integratu gabeko euskal lankidetzaren eragileak ordezkatzeko:

a) Unicef-Euskal Herriko Batzordea ordezkatzeko:

– Ordezkoa: Natividad de Jesús Campillo López andrea, Carlos García Bakedano jaunaren ordezkaria.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, oro har, denok jakin dezagun.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko urriaren 14an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.